

Astekaria

BARRREN

elgoi



Ihauteriak 93!
Edozertarako lizentzia

AZKUE



kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza

3 LAU HANKATAN

"Gaur egun, gure gizartean, gazte guztiak aukera berdinak dituztela jakinarazi nahi digute" **Joxin Arregi**.

6 ERREPORTAIA: IHAUTERIAK

Tradizioak dio, Ihauterietan jendeak barneko desio eta gura guztiak liberatzen zituela Garizuman sartu baino lehen.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: IHAUTERIETAN MOZORROTU?

Juan Fernandez

"Galdetzen badidazue zergatik ez zaidan mozorrotzea gustatzen, egia esan, ez dut sekula pentsatu".

Miriam Garate

"Haurtzarotik dugu ohitura honen defentsa, txikitatik bizi izan ditugu eta lamentagarria litzateke hain ohitura polita galtzea".

12 BERBETAN

"Japonierak eta Euskarak badute antzekotasunik".

Juan Inazio Urkiri, "Malua".

14 KIROLA:

GAIA: TENIS ESKOLA.

ELKARRIZKETA: **Jabi San Martin**: "Bizikletaz Moskura joan nahi dugu".

16 ELKARTEETATIK BUELTRAN

GURE BIDE: TXIRRINDULARITZA BULTZATU DUEN ELKARTEA.

17 KULTURA

ELGOIBARKO IZARRAK ARO BERRIKO BIGARREN URTEARI EGIN DIO.

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	742950
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpeketasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarteak.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158	
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..743088	
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

KOMIKIA



LAU HANKATAN

Joxin Arregi



Ez da egia gazte guztiak aukera berdinak dituztela

Gaur egun, gure gizarte-an gazte

guztiak aukera eta posibilitate berdinak dituztela jakinarazi nahi digute.

Errealitatera jotzen badugu, egia da gazte guztiak elkarrekin dabiltzela, herri barruan denak batera mugitzen direla. Kanpotik begiratuta, beraz, gazte guztiak aukera berdinak dituztela dirudi. Baina errealitate horretan sakontzen badugu, berehala ikusiko dugu gazte horien artean gazte talde desberdinak osatzen direla. Ez da, beraz, legezkoa gazte guztiak klitxe berdin batean sartzea, guztiak aukera eta baldintza berdinak balituzte bezala.

Ondorengo datu hauek begiratzenez baditugu, azkeneko urte hauetan ezkutatu nahi den zatiketa nabarmenduko zaigu:

Non jaiotzen garen, gure gurasoen

ogibideak, kulturak, bizi garen auzoak, gure ikastetxeen errealitateak, neskak ala mutilak garen, guzti horrek prestaketa eta lan-aukerak indartzen ala gutxitzen ditu. Honekin batera, Inem-en datuak jasoaz, hamar kontratutik zazpi lagun bidez eta euren bitartez egiten direla jakinda, gazte-talde batzuen etorkizuna erabat iluna agertzen zaigu.

Sarturik gauden krisialdi honetan, lehia neurri handiago batean bultzatzen ari garen garai honetan, langile xumeak gehien sufritzen ari dira, eta beraiekin batera hauen seme-alabak.

Guzti honegatik, plangintza, diru eta errekurtsio gehienak gazte hauen-tzako eskatzen ditugu.

Ezin da gazte-talde hau baztertuz, zuzentasunean eta pakean biziko den gizarte bat sortu.

Gazte Taldea \ Egoera	LANGILE XUMEA	LANGILE ESPEZIALIZATUAK	NAGUSIA	TEKNIKOAK
IKASLEA	%32	%59	%65	%75
LANGILEA	%27	%18	%25	% 8
AZPI-LANA	%14	% 3	% 3	-----
LANGABEZIA	%20	% 7	-----	-----

AITAREN LANA (OGIBIDEA)	ESKOLAKO PORROTA
Langile xumea -----	% 85,38
Langile espezializatua	% 11,20
Langide liberalak edo dendariak	% 3,38

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegia
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementeria
- Publizitatearen diseinua**
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Susana Mujika, Jason Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta.
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Inprimategia**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**
3.000 ale
- Lege gordailua**
1.025 SS-92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

LOPEZ

IZOZKIAK CROISSANTAK

*Fhauteri
zoriontsuak!*

San Bartolome 4

K.A.I. taldeari erantzuna

Adiskide maiteok: ez nuen eskuratu Gabonetan egin zenuen gonbidapenarena, baina jakin nuen Eliza utzi nahi zuten, liburuak, gurutzeak e.a. eramateko esan zenietela. Ez gurtzeko, bestetarako baizik.

Ez dut ulertzen zergatik diozuen horrelako gorrotoa Jesukristori. Kristo ez zen bada oso aberatsa. Ez zen jaio etxe txiki batean mendian, leizezuloan, baizik.

Behartsua izan zen, aroz-tegiko lanean, 30 urte bete arte. Hiru urte eman zituen ZERUKO ERREINUA ALDARRIKATZEN, behartsuei batez ere. Esan bakarrik ez, bete egin zituen hitzok: "ez naiz etorri zerbi nazaten, besteak zerbitzera baizik eta neure bizia ardien alde emateko. Eta denbora guztia ondo egiten eman zuelako, (gaixoak, legendunak, deabruaren menpekoak), pobreak zerbi-

tzatzen eta zapalduci justizia egiten GURUTZEAN HIL ZUTEN, zorotzat eta madarikatutzat hartua. Horrelakoa zen gurutzean hiltzen zutena.

Erljio tribunalek eta zibilek gaitsetsi zuten. Zer duzue, beraz, Kristoren kontra? Jainkoak Beraren antzekoak egin nahi gaitu eta guk geure buruok animaliak bezala zuloan, amaitzen dugula esaten dugu.

Erregearen alaba batek neskame bati esan omen zion: "ez al dakizu Erregearen alaba naizela?". Eta neskameak erantzun: "eta zuk ez dakizu ni Jainkoaren alaba naizela?", Jainkoarenganako sinismenik gabe, gehienok txarrago izango ginatke. Eta gure herrietan sinismena galtzen ari denetik, gure arteko lagunartea galtzen ari da.

Eliza: egia da huts handiak eta injustiziak egin dituela. Bai eta mesede asko eta klase guztietako gauza onak ere mundu osoari. Hor

dago Calcutako Mother Teresa eta beraren jarraitzaileak. Hainbeste misiolari, lepradunekin (Aita Damian de Vuster, adibidez, bera leproso hil arte).

Nork daki zer diren "Las escuelas de fe y alegría"? Orain hogeita bost urte Caracasen Velaz apaizak sortuak izan ziren hiri bazterrean bizi diren umeei erakusteko. Ehundaka horrelako eskola sortu zituen berak hogeitatan Indio/Amerikan: orain 660.000 umek ikasten dute eskola horietan.

MANOS UNIDAS, LUCHA CONTRA EL HAMBRE; zenbat milioi biltzen eta zabaltzen ote ditu Hirugarren munduan, eginkizun mesedegarrietan; gestioan bakarrik %3a gastatzen duela-rik.

PROYECTO HOMBRE, Euskal Herrian ere horren mesedegile dena. Zein arduratzen da Eliza bezala SIDA gaixotasuna dutenez? Merce-

des Milak izan dituen telebisio saioetan, SIDAz gaiso zen batek esaten zuen pozik zegoela gaisotasun horrekin "maitasuna ezagutu zuelako", Camilos fraileek horren ongi tratatu baitzituzten.

Kristautasuna borrarrea ezin liteke, seinale bat gelditzen delako. Elizak denontzat gauza EDER hori nahi du: JESUSENGANAKO sinismena. Gurasoek beren umeentzat gauzarik onena nahi dute. Herrietatik ematen die Jangoikoaren sinismena.

Giroak askotan libertadea kentzen digu geure kontura pentsatzeko. Ez gara konturatzen zein aberastasun handia daukagun sinismenean.

Adiskideok: ez utz Kristoren Eliza. Ebanjelio guztian ez dugu besterik irakurtzen: MAITASUNA. Elizak hori erakusten digu eta ahalegintzen da horretan. Besarkada handia guztiontzat.

Mari Karmen Garate

93ko ezkongaiak



BIKOTE
SARITUARENTZAT
ERREGALIAK

93KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK

SENARGAIAREN JANTZIA
 ANDREGAIAREN JANTZIA
 ERAZTUNAK ETA ZILARREZKO 13 EZKON DIRU
 EZTAI EGUNERAKO CAVA
 SUKALDERAKO MAHIA ETA 4 AULKI
 EROSKETA TXARTELA
 ARGAZKI ERREPORTAIA
 PALMA DE MALLORCARA BIDAIA
 EROSKETA TXARTELA

ETXEAK

AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)
 BAYON (Donostia)
 KAREAGA (Eibar)
 CODORNIU
 IKER (Mondragón)
 SOFAS LANDETA (Azpeitia)
 FOTOKAI (Donostia)
 EROSKI BIDAIAK (Donostia)
 GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

ZOKETA: OTSAILAREN 26an

1994ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 26a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 93KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA _____ (izen deiturak)

_____ (helbidea)

ANDREGAIA _____ (izena)

_____ (izen deiturak)

_____ (helbidea)

_____ (telefonoa)

_____ (telefonoa)

_____ (telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera)

HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA



Aste honetako erretratua **Juanito Etxanizek** laga digu eta 1936. urteko Ihauterietan ateratakoa da.

Erretratuan azaltzen zaizkigunak "Estudiantina" bat osatu zuten, Ihauterietan urtero kantuan ateratzeko. Batutako dirua ospitalean entregatzen zuten (bihotz oneko jendea beti egon da Elgoibarren!). Juanitoren hitzetan, urtero aldatzen zuten mozorroa eta 1936an, begibistakoa den bezala, kamarero disfrazatu ziren,



urtero kantu berriak konposatzen zituztelarik. Ikus dezagun zeintzuk agertzen diren erretratuan (kamarero jantziarekin azaltzen direnak bakarrik aipatuko ditugu, haur bat baino gehiago ezagunak badira ere).

Goitik hasita, ezkerretik eskuinera:

-Alberto Gurrutxaga, Anjel Riaño (zuzendaria), Rafael Mugerza, Rafael Etxaniz, Antonio Arrillaga.

-Rafael Etxeberria, Julio Arriaga, Jose M. Igartua, Antonio Azpiazu, Ladis Elorza, Miguel Sanchez.

-Antonio Etxaniz, Juan Etxaniz, Pako Muñoz, Jose Sainz, Florentino Etxeberria, Luzio Ostolaza, Felix Garcia, Bittor Gurrutxaga.

-(Lurrean eserita) Julian Azkue, Iñaki Konde, Antonio Arriola, Enrike Gil "Patri".

Azpien daukazuen kanta, urte hartan kaleratu zuten kanta-diptiko batetik atera dugu.

La novia de Tolin (Habanera)

Tiene Tolin una novia
¿Quién será?
Dice que vino de Cuba
¡Ha! ¡ha! ¡ha!
Será de negros ojazos
Y de cuerpo gitanazo
O será una pelmaza
que lo quiere de verdad.

Ahí va, ahí va la novia
La novia de Tolin
Es airosa y rumborosa al andar.
Cariñosa y mimosa en su hablar
Ahí va, ahí va la novia
La novia de Tolin
Tiene garbo y movimiento sin igual
Y en sus ojos se ve la dulzura
De una criatura muy zalameal.

EIBAR

OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergiologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Medicina interna | |

Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

**Har
pi
de
tzak**

74 16 26



Ihauterietan lotsa alde batera eta umorea kalera

Ihauteriak, dibertsioa eta umorea kaleratzen diren egunak dira. Tradizioak dio, Ihauterietan, jendeak barneko desio eta gura guztiak liberatzen zituela, Garizuman sartu baino lehen. Gaur egun, jentilen jai haien izpiritua gordetzen ez bada ere, Ihauterietan, bakoitza bere historiaren aktore bihurtzen da.



AZKUE

↳ 1967. urtean, Ihauteriak orain bezain alai eta herrikoiak ziren.

Mozorro eta musikaz beteriko egun zoroak dira Ihauteriak. Duela gutxi arte, egun bakarra ospatzen zen Elgoibarren, asteartea, alegia. Baina Tolosako Ihauterien eraginez edo, larunbat gaua ere, mozorrotzeko eguna bihurtu da. Ez da gauza handirik behar Ihauteriak oso osoan bizi izateko. Garrantzitsuena kalera irtetea da, eta egun hauek eskaintzen duten desinhibizio aukera aprobetxatzea.

Elgoibarren, beste herrietan bezalaxe, debekatua zegoen karnabalak edo Ihauteriak ospatzea. Gaur eguneko Ihauteriak ospatzeko modua beraz, nahiko berria den arren gehienentzat, badakigu gerra aurretik Ihauteriak oso errotuta zaudela herrian.

Sasi-koipetsu

Gerraostean, Ihauteriak beste modu batean ospatzen ziren. Ostegun lodi egunean, laguntaldeak, norbaiten etxean bildu edota

Ihauterietan garrantzitsuena kalera irtetea da, eta egun hauek eskaintzen duten deshinibizio aukera aprobetxatzea.

mendira joanda, bapateko jaia antolatzen zen. Ohitura izaten zen "sasi-koipetsu" egitea, hau da, sasi makila batean txorizoa erretzen zen eta, hain zuzen ere, hortik datorkio izena. Garai hura bizi izan zutenek diote, egun honetan, jendea kantuan eta dantzan kalera irteten zela Ihauteriak ospatzeko. Gerra aurretik, ordea, gaur egun bezala ospatzen ziren Ihauteriak. Jendea mozorrotuta ateratzen zen kalera eta

INTXAURRAGA
zerbitzu aukeratua
... SECUC ...
San Roke 11, Tel. 74 18 37

TRUK  **KAFETEGIA**
San Frantzisko 26, behea
Tel: 74.26.21


MEKANOSA
Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Udaletzeko Plenoen aretoan dantzaldia antolatzen zen.

Gaur egun, ordea, itxuraz gauzak ezberdinak diren arren, Ihauterietako izpiritu "karnabalerora" bizirik dirau. Urtero, larunbat gauean, mozorro lehiaketa antolatzen da eta jurgak goizaldera arte irauten du. Mozorro lehiaketan epaimahaiko kideak jendearen artean nahasten dira eta edonork har dezake parte. Aurtengoan, taldeko mozorroak 35.000 pezeta jasoko ditu eta bigarrenak 30.000 pezeta. Banakako mozorroetan, lehenengo saria 15.000 pezetakoa izango da eta bigarrena 10.000 pezetakoa

Dena den, gai honetan jakitunak direnek, benetako izpiritu karnabalerora, asteartekoa dela esaten dute. Arratsaldetik, kaleak mozorrotutako pertsonaz betetzen dira eta imajinario eta umore handieneko mozorroak astearte gauean ikusten direla esaten dute.

Azken urteotan, mozorrotzeko forma aldatu egin da. Gero eta gehiago, eta gazteak batez ere, azken orduko edo, hobeto esan, etxean egindako mozorroaren aldekoak dira. Normala izaten da larunbat goizean gauerako mozorroa presta-



Azkue

➔ Orain dela sei-zazpi urte hasi ziren Elgoibarren Ihauteriak berpizten.

tu gabe izatea, eta askotan zertaz mozorrotu ere erabaki gabe edukitzea. Pelukak, amaren soineko horteroa, zapata ortopedikoak eta apaingarri galaktikoak jantzita ateratzen direnak gero eta gehiago dira.

Badaude, ordea, mozorroa alde aurretik eta ondo prestatuta edukitzea nahia izaten dutenak. Duela hainbat urte, Pitxintxu dendakoak karnabaletako mozorroak josten eta, batez ere, ideiak ematen aritu dira. Denetariko jantziak

Etxeko trapu zahar eta modaz pasatutako jantziekin mozorrotzek grazia berezia izaten du.

josi dituztela diote baina funtsezkoa ideia ona izatea da. Halere, betikoak diren mozorroak egiteko eskatzen die jendeak oraindik. Umeentzako pailaso, printzesa eta "El zorro" bezalako mozorroak dira, geheinbat, egiten dituztenak. Mozorro merkeenaren prezioa 6.000 pezeta inguruan ibil daiteke eta garestiena 12.000 pezeta inguruan. Dena den, egin izan dituzte mozorro garestiagoak baina prezio hori ez gainditzen ahalegintzan dira.

LODOSO LEHIOAK
BALKOIRAKO
ALUMINIOZKO ARMARIOAK

Ermuaranbide 16. ☎ 74 34 90

XABIER
 ILEAPAINDEGIA

Eskatu eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

TxiRiBOGa
Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
 ETA OTARTEKOAK

Plaza merkatua 23-24



Ihauterietan mozorrotu?

Galdetzen badidazue zergatik ez zaidan mozorratzea gustatzen, egia esan, ez dut sekula pentsatu. Beharbada ohituragatik, edota hobeto esanda usadio ezagatik.



Txikitan Ihauteriak gertaera urruna bezala bizi izaten nituen. Banekien ospetsu batzuk ospatzen zirela "Rio-n, Cadiz-en, Tenerife-n... baina nik ez nuen haietan parte hartzerik, beraz, gauza urruna zen.

70. hamarkadatik aurrera Francoren heriotzarekin, debekatutako zenbait ohitura berreskuratzen hasi ziren, eta Ihauteriak herri askok hartu zituen dibertitzeko ekintzat. Baliteke, jendeak errepresio garai baten ostean horretarako beharra izatea, baina neretzat, ordea, beranduegi zen. Mozorrotzeko ohitura falta zitzaidan, barregarri sentitzen nintzen eta noski, dibertitzeko ez nuen haren beharrik

sentitzen.

Beste arrazoi bat da, ez zaizkidala dekretoz ezarritako jaiak gustatzen. Egun zehatzetan edan, salto egin e.a. egin behar duzu, eta hau egutegiak esaten duelako soilik; beraz, asko kostatzen zait honetan parte hartzea.

Guzti honekin ez dut esan nahi "carnaval" a ez zaidanik gustatzen, ezta gutxiagorik ere, baina gaurko gazteek bizi duten ohitura eta ilusio hori falta zait neri.

Ongi pentsatuta ez litzateke gaizki egongo nik neure buruari farre egitea. Agian aurten mozorrotuko naiz... Batek daki!

Juan Fernandez
(erredakzioan itzulia)



Mozorrotzearen aldeko jarrera nolabait onesteko, historian atzera egin behar dugu. "Karnabal" en ohitura gure arbasoek utzitako altxor miresgarri bat dela ikus dezakegu, mendez mende pertsonen kontserbatutako ohitura, hain zuzen ere.

Haurtzarotik dugu ohitura honen defentsa, txikitatik bizi izan ditugu eta lamentagarria litzateke horren ohitura polita galtzea. Gogoan ditut duela urte askoko oroitzapenak eta, egia esan, itxura aldatze horrek beti erakarri nau.

Zergatik mozorrotu? Nere ustez gizaki orok "rol" bat daukagu bizitza honetan, eta "rol" honen inguruan mugitzen gara. Paper bat dugu edo eta "bete behar" dugu, bai lanean, bai ikasketetan, ... gizarteak eskatzen baitigu. "Rol" ezberdin hauen munduak arazoak dakartzigu, eta arazo hauek alde batetara uzteko dugun aukeratariko bat "karnabal" etako astebete hau dugu, monotonia alde batetara utzi eta alaitasunez inguruko arazoei aurre egiteko.

Beraz, karnabala, noizbait izan nahi genuena, izatea gustatuko litzaikeena edo eta izaten utzi ez digutena momentu batzutan bizitzeko aukera da. Bakoitzak hautatu beharko ditu mozorro eta behar dituen gauza guztiak errealitate honetatik ihes egiteko.

Bukatzeke, beste herrialde batzuetan ere, Rio de Janeiron eta Tenerifen adibidez, ospatzen dituzte jai hauek beste kutsu batekin. Gure karnabalekin inolako kidetasunik ez duten arren, funtsean ohitura beraren defentsan gaude. Eutsi diezaigun gure "Zanpartzart" en ohiturari, geure herrikoak diren pertsonaia hain bitxiei, gure herriaren ezaugarritzat ditugun hauei. Anima gaitezen eta inoiz baino karnabal hobek pasa ditzagun.

Miriam Garate



GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiatzen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*





E TA ZURE USTEZ?

Ihauterietan mozorrotu?



Juan Lizarraga
54 urte, langabetua

Nik ez dut disfrazik behar; nahikoa disfraz daukat. Baina gustatzen zait jendea disfrazatzea eta, karnabalak ere bai. Monotoniatik ateratzen da jendea.



Mitxel Esnaola
16 urte, ikaslea

Disfraz aurkitzen badot disfrazatzen naiz. Gustatzen jata, baina disfraz ganorazkoa bada. Oso kutrea denean, ba ez.



Mari Ezenarro
54 urte, etxekoandrea

Ni orain ez naiz disfrazatzen; lehen bai. Karnabaletan egoten den giroa oso ona iruditzen zait, baina disfraz prestatzeko astirik ez dot eukitzen.



Mila Astigarraga
46 urte, jostuna

Karnabalak oso ondo daude, izugarri gustatzen zaizkit, baina azken urteotan ez naiz disfrazatu. Oso giro polita egoten da.



Nagore Escudero
9 urte, ikaslea

Ni aurten "de arabe" disfrazatu behar naiz. Oso dibertigarria da. Orain asteartean bakarrik disfrazatzen naiz, baina handia egiten naizenean larunbatean ere disfrazatuko naiz.



Jose Luis Morcillo
29 urte, merkatal teknikaria

Azken urteotan ez naiz disfrazatu. Aurten igual kanpora joateko aprobeztatuko dugu. Baina kadrila guztia afaltzera disfrazatuta joatea eta hori, oso polita iruditzen zait.

ADI!

IKAS EZAZU ORAIN, GERO
LAN EGITEKO ORDUAN
ESKATUKO DIZUENA.

APPLE MACINTOSHekin
APLIKAZIO PRAKTIKOAK

ORAIN ORDENAGAILUA ERABIL
DEZAKEZU INFORMATIKA IKASI GABE

EMAITZAK:

- LAN INGURU ATSEGIN, ERRAZ ETA PROFESIONALA.
- ERA GUZTIETAKO DOKUMENTUAK IDATZI ETA NAHI BEZALAKO ITXURA EMATEA.
- AURREKONTUAK, FAKTURAK, KONTABILITATEAK, ALBARANAK, E.A....EGITEA.

- KURTSO MONOGRAFIKOAK
- OFIMATIKA KURTSOAK
- INFORMATIKA AHOLKULARITZA

- DENDA ETA ENPRESENTZAKO KURTSOAK
- AURREKONTU PERTSONALIZATUAK
- ENPRESEN MEKANIZAZIOA

ELGOIBAR

UBITARTEN JADANIK
BI TALDE HASITA
DAUDE ETA AZKENA
PRESTATZEN ARI
GARA.
ANIMA ZAITEZ ETA
DEITU!
PLAZA MUGATUAK

INFORMATIKA

Elkano kalea, 28-1esk.
(48.008) Bilbo
Tel: (94) 422 11 33
Fax: (94) 422 39 81

Elgoibarko Izarrak bere Berripapera argitaratu du

Berripaperak Elkartearen organigrama, iazko urtean egindako aipagarriena eta aurtengorako prestaturik daukan egitasmoari buruzko informazioa dakar. Lau orrialde ditu publikazioak eta urtean behin aterako da. Berripaperaren nahia elgoibartarrei Elkarteari buruzko informazioa helaraztea da, Elkartea eta herritarren artean egon den distantzia eta komunikazio-eza apurtzea, alegia. Banaketari dagokionez, elgoiBARREN astekariarekin batera buzoneatuko da.



Torturaren aurkako eguna ospatu zuten Gestorek

Pasa den larunbatean torturaren aurkako eguna ospatu zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeek. Foruen Plazan hainbat kartel jarri zituzten presoek jasandako torturak erakusten zituzten argazkiekin batera.

1992. urtean arrazoi politikoak


direla eta atxilotutako euskal herritarren artetik, 120 gutxienez torturatu egin dituztela eta oraindik ere torturatu egiten dela salatzen dute.

Igandean, Amnistiaren Aldeko Batzordeek giza kateak antolatu zituzten Euskal Herriko lau hiriburuetan.



Ez al dugu inoiz ikasiko?

Errekara ematen duten San Frantzisko kaleko etxeok bista ederra dute erreka zabor poltsa eta orinalaz beteta. Ingurune garbia nahi dugula esaten dugu, horretarako norberarengandik hasi behar. Zabor hauek bota dituztenen bidea ez dezagun jarraitu behintzat!



magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

JAVI ITURGINTZA BEROGAILUAK
komunak arazoak ematen dizkizula...
Erretxindi 1-4 B **74 14 80**

Apraix
Lurrindegia
San Bartolome 9 ☎ 74 07 44

Gazte-txartela

1991-92 kanpainan aterako Gazte-txartelak indarrean jarraituko du apirilak 30a arte, data horren inguruan baitu Kultur Zerbitzuak, txartel berria eta hari dagoen gida banatzen hasteko asmoa. Bestetik, agroturismoak izan duen gorakada

dela eta, Kultur Zerbitzuak jakinarazi nahi du bertan, interesatua dagoen orok agroturismoa egiteko dauden tokien berri, Gipuzkoa, Bizkaia zein Araban, eta hauei dagozkien prezioen berri ere izango duela. Honezaz gain, Kultur Zerbitzuak albergei buruzko informazioa ere eskaintzen du.



Enpresa munduko Ideien IV. lehiaketa

Enpresa munduko ideien sorrera bultzatzeko Eibarko Udalak "Enpresa munduko ideien IV. lehiaketa" antolatu du. Lehiaketa, banakako zein taldeko promotore (Ermua eta Mallabia barne) eta edozein lantegi edo enpresari gipuzkoarri zuzendua dago. Adin aldetik ez dago toperik eta edozein lan iharduera har daiteke proiektuaren ardatz gisa.

Lehiaketaren irabazleak 3.000.000 pezetatiko saria eta garaikurra jasoko du eta horrezaz gain, epaimahaiaren laguntza izango du erakundeen dirulaguntzak jaso ditzan.

Izenemate orriarekin batera azalpen txostena, promotorearen biografia motza eta asmoaren azalpena aurkeztu beharko da.

Lanak aurkezteko lehen epea martxoaren 31ean bukatzen da eta bigarren epea apirilaren 19tik ekainaren 30a bitartekoa izango da. Proiektuak eta agiriak Eibarko Udaleko informazio bulegoan utzi behar dira. Lehiaketaren oinarriak Gipuzkoako Udal guztietan aurkitu ahal izango dira.



Javier Juanesen Ikusentzutezko emanaldia

Asteazken eta ostegun iluntzean, AEKk antolatuta eta KUTXAren babesaz, Javier Juanesek egindako hogeita hamar minutuko ikusentzutezko saioa proiektatu zen Kultur Etxean. "Euskal Herria: lanetik festera" izenburupean, gerra aurretik sortutako herri Ihafterien nondik norakoak azaltzen ditu ikusentzutezko honek. Halaber, Euskal Herriko ohitura, bizimodu, tradizio, artisautza, jai eta folkloreaken ikuspegi orokorra eta, aldi berean, trinkoa ematen du.

foto | azkue

ANIVERSARIO
20
1973 - 1993
URTEURRENA

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

MERKEALDIAK

ZOBEL ZB

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

PUB

LAJANTEL

elgoibar

Juan Inazio Urkiri, "Malua":

"Japonierak eta euskarak badute antzekotasunik"

Juan Inazio Urkirik sei hilabete pasa ditu Japonen. Bertako bizimodua ezagutu eta bide batez japoniera ikasteko aukera euki du.

Japoniera ez zaio hizkuntza hain zaila iruditu. "Dakidan guztia nere kontura ikasi dut, kalean, jendearekin hitzeginez".

-Nola okurritu jatzun Japonera joatea?

- Inglaterran ingelesa ikasten nengoela mutil japoniar bat ezagutu nuen. Lagun handiak egin ginen eta Japonera joateko gonbitea luzatu zidan. Lana topatzeko arazorik ez nuela izango ziurtatu zidan eta azkenean animatu egin nintzen, pen-tsaturaz esperientzia interesgarria izango zela.

-Japongo zein tokitan egon zara?

- Sei hilabeteak Nagoyan pasa ditut. Hiri handia da, lau milioi biztanle ditu. Tokyo hiriburutik 350 kilometrotara dago.

-Zer egin dozu denbora horretan?


- Lan egin dut. Hasieran arrain faktoria batetan kamioiak kargatu eta desgarkatzen ibili nintzen. Gero, Elgoibarrera etorri arte, txurroak saltzen egin nuen lan.

-Japoniera ikasten ere ahalegindu zara, ezta?

- Bai, zertxobait ikasi dut. Batez ere lanean eta kalean eta gero etxean, liburuak irakurritz.

-Entzuna dugu japonierak eta euskarak badutela antzekotasunik.

- Horrela da bai. Japonierak euskararen antzeko tonua dauka eta askotan



"Japon mendebaldeari eta konkretuki Estatu Batuei begira bizi da"

esaldietako hitzen ordena berdina da bi hizkuntzetan. Oso kurioa da antzekotasun hau.

-Ze inpresio jaso duzu Japonetaz?

- Nazio aurreratua da guztiz. Nik esango nuke Japon mendebaldeari eta konkretuki, Estatu Batuei begira bizi dela. Hala ere, euren ohitura eta tradizioak mantentzen saiatzen dira.

-Zerbaitek bereziki deitu al dizu atentzioa?

- Ba, esate baterako biztanle kopuruak. 110

milioi pertsona bizi dira Iberiar Pentsula baino txikiagoa den lurraldean. Gehienak hiri handietan bizi dira. Hiri hauen azpian, lurrazpian, beste hiri bat egoten da, metroa, denda, taberna eta supermerkatuekin. Aipatzekoak dira baita lurrikara edo terremotak. Batazbeste 1500 lurrikara egoten dira urtero Japonen. Gehienak igarri ere ez dira egiten, baina badaezpada ere etxe guztiak prestatuta daude lurraren astinduei eran-

tzuteko.

-Zer ekarriko zenduke handik?

- Adibidez bainuak hartzeko duten ohitura. Euren kulturaren ezaugarri bat da. Etxe gehienetan bainontzia elementu garrantzitsuena da.

-Nolakoak dira japonierak? Badakigu langile finak direla.

- Goizeko 7,30etatik gaueko 12etara lan egiten duten lagunak ezagutu ditut. Gainera, jaiegun gutxi eta opor motzak dituzte. Edukatuak dira, tratu onekoak, baina hori bai, oso matxistak. Emakumeek ez dute zeresanik. Erabakiak gizonetakoek hartzen dituzte.

-Han ere krisi egoeran al daude?

- Nik behintzat ez dut krisirik nabaritu. Badirudi orain Japonen bizi duen egoera ekonomikoa ez dela hain ona, baina hala ere langabezia tasa oso baxua da. Ehunetik bi bakarrik daude lan gabe.

-Gustora geratu al zara Japonen egindako egoaldiarekin?

- Bai, herri eta kultura berriak ezagutzea beti da interesgarria.

Aitor Zabaleta

Jesus Mari Arakistain

Fisioterapeuta



- Txikitan zer nahi izan zenuen?
- Sendagilea.
- Noiz hasi zinen ostikoka?- Txiki txikitatik, 10 urtekin jada futboleant egiten nuen.
- Masajeak hartu ala eman?
- Segun, baina askotan gehiago disfrutatzen det ematen.
- Futbola, hobbia ala lana?- Lehen lana zen, orain hobbia da.
- Non sufritzen da gehiago, bankiloan ala zelaian?- Dudaripe, bankiloan.
- Bizitzak sartu dizun golik gogorrena?- Orain arte, behatzak gurutzatzen ditut. Bizitzak ondo tratatu nau.
- Nori emango zenioke masaje bat gustora?- Benetan behar duen norbaiti. Ixa ixa erderaz ez dakien baserritar bati, beldurtuta dagoen edadetu bati emanaz gustora sentitzen naiz.
- Eta nor entrenatuko zenuke gustora?- Bueno...Elgoibarren oso ondo nago.
- Nori aterako zenioke txartel gorria?- Politiko korruptoei.
- Mueble bat bazina, zein?- Ohea.
- Zerk gorritzen zaitu?- Uiii! Erraz gorritzen naiz.
- Salsa ala valsa?- Batzutan salsa baina gehienetan...valsa.
- Zerbait sakratua?- Bazkalondoko siesta.
- Denbora librean aparteko zerbait egitea gustatzen al zaizu?- Oso denbora libre gutxi daukat, baina... egonean egon, mendira joan, lagunekin egon, pelota partidu bat ikusi...
- Mote bat jarriko zenioke zeure buruari?- Oso zaila da hori, gaztetan "El rubio" esaten zidaten. Hori besteekin jarri behar dute.
- Maiz ematen duzun kontseju bat?- Bakoitza bere buruarekin konforme gelditu behar da, eta beste jendearekin dignitatez portatu.
- Noizbait egon al zara loak ezin harturik konbokatoria egin aurretik?- Bai, nere ametsa, jokalaria guztiak nirekin ondo konpontzea da, baina 11ek jokatzen dabe eta 21-22 egoten dira.
- Korbata ala bufanda?- Gustatzen zaizkit bixak, baina ez du hotz haundixa egiten eta normalean korbatakin joaten naiz partidotara.
- Agur ala geroarte?- Geroarte beti!!

Susana Mujika

BERTSOTAN

IHAUTERIAK

Doinua: Habanera

Ez dakit ihauteriak garai batean zer ziran ez da gaur egunean benetan zer ote diran, baina askotan pentsatzen dut zeinen arrotzak zaizkidan! Txorimalu ugari ta zurikeria ziran. Zazpi indio korrika pistoleroak segidan Charlotek irrian ordeztu a zer pena eman didan hamaika neskatxa lirain hamaika puta bailiran tabernan jende guztia jarri dute ikusmiran.

Irudimen gutxi eta falta zaigu ausardia kontuok direla eta poztuko da dendaria dirua hola xahutzea ez al da txorakeria mozorroa azken finean izango da edaria. Baina ez gaitezen tristetu poztu daigun aurpegia antzerki pixkat eginez ahaz dezagun egia, aukeran izango dira jolasa eta ziria beraz aprobeztatu ta ondo pasa Ihauteria!

Asier Etxaniz

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

KEMEN Belardenda

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

Harpidetzak

74 16 26

Ego-tokikoak erdipurdi aritu ziren Euskadiko Kros txapelketan

Pasa den astebukaeran jokatu zen Euskadiko Kross Txapelketan, Ego-Tokiko korrikalariak, beraiengandik espero zena baino gutxiago egin zuten. Mutilen lasterketan, Javi Santamariak karrera utzi behar izan zuen hankako minak jota. Partaidetza handia egon zen Junior mailan, eta horrek korrikalari elgoibartarren lana zailago egin zuen.

Alberto Revueltak brontzezko medaila lortu zuen eta Espainiako Txapelketarako pasea ziurtatu zuen honela. Revuelta Espainiako Txapelketan, lehenengo 10 postuetan gelditu daiteke.

Carmen Pereak, lasterketa guztian zehar aurreneko postuetan egon ondoren, bukaera txarra egin zuen 9. postua egin zuelarik. Carmenek, Espainiako Txapelketan postu bat ziurtatzeko aukera galdu zuen, baina baliteke, bere marka onak direla eta, Federazioak Espainiako Txapelketarako deitzea. Dena den, larunbatean korrituko den 800 metroko lasterketan, irabazteko faborito da Carmen.

Isabel Ruizek 20a izatea lortu zuen, lasterketa izugarri ona burutu ondoren.



Jabi San Martin "Bizikletaz Moskura joan nahi dugu"

-Noiz hasi zinen kirola egiten eta zerk bultzatu zintuen? -17 edo 18 urtekin hasi nintzen. Saltaka egitea gustatzen zitzaidan eta hasieran oso gogorra bazen ere, gero erraztasuna hartu nuen. Ordurarte ez nuen kirolik egiten, esku pilota bakarrik.

-Eta orain zein kirol egiten dituzu? -Karrera popularrak, duathloiak eta triathloiak.


-Eta maratoirik? -Ez, maratoiak bildurra ematen dit.

-Zenbat ordu pasatzen dituzu egunean kirola egiten? -Hasieran pare bat ordu baina orain igual 3 edo 4 ordu. Normalean eguerditik aurrera.

-Kirolean egin duzun astakeriaren bat? -Behin Zelaia eta lagun batzurekin San ferminetara joan nintzen, eta bi gaupasa egin ondoren Donostiako triathloia jokatu neban. Bizikleta kotxean neukan eta zuzenean joan nintzen.

-Asmo berriren bat? -Beti bezala, karrera popularrak korritzea eta Zarautzeko triathloi luzea korritzea.

-Zertan datza froga hori? -Getariatik Zarautzera igerixan hiru kilometro, bizikletan larogeita piku eta saltaka 20 bat kilometro. Txarrena ez da luzera, bero egiten duela baino.



-Udaran atsedena hartzen al duzu? -Azkenaldi honetan, abuztuan, bizikletaz ibili gara. Orain hiru urte Elgoibar-Valentzia-Bartzelona egin genuen eta orain dela bi urte Elgoibar-Amsterdam. Pasa den urtean Elgoibartik Innsbruck-era (Austria) joan ginen bizikletaz Zelaia eta biok.

-Udara honetarako asmorik? Buruan daukagun plana Mosku-ko Plaza Gorrira joatea da, baina horretarako dirua behar dugu. Igual sponsor bidez edo...

Ramon Mujika

● Adina: 26

● Juerga ala kirola: Bixak

● Noiz bat eta noiz bestea:

Kirola egunez eta juerga 24 orduz.

● Kirolaren alde ona: osasuna

● Eta alde txarra: ez dauka

● Kirolariaren edaria: Kalimotxo

● Biziorik: kirola

IDARRAGA
KAPEAK

Eguneroko errealdiak

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

Fotero

OKINDEGIA

OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

GARATE

JANTZI - DENDA

Bartolome Deunaren Kalea, 13 . Tel: 74 11 29 ELGOIBAR

Tenis eskola duela sei hilabete dago martxan

Tenisak gero eta harrera hobetua du gure herrian. Hala adierazten du behintzat tenis eskola bat martxan egoteak, eta uda partera tenis ikastaroak gero eta aruntagoak izateak. Nagusiak, gazteak zein haurrak dira tenis zaletuak. Adina ez da zaletu hauentzat behintzat oztopo.

Pasa den urteko urrian eman zituen lehen urratsak Tenis eskolak. Udal kirol teknikaria eta laguntzaile bat arduratzen dira klaseetat, eta aurtengo kurtsoa 6 ikaslerekin hasi zen arren, orain guztira, 13 ikasle dira. Haurrak, 9 eta 12 urte bitartekoak dira, hori baita pertsonaren gaitasunak gara-tzeko adinik hoberena. Tenisaren bidez lortu nahi duten helburua, ez da soilik kirol hori sustatzea. Eskolak, ezer baino lehen, hezitzaile izan nahi du.

Tenis eskolako ikasleen artean, Elgoibarko zaletuez gain, Eibar-ko, Ermuko eta Plaentziko haurrak daude. Astean bi aldiz ematen dituzte klaseak, astearte eta ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 8ak arte. Eguraldi ona izaten denean, larunbat goizetan ere bai.

Udaberri aldera, joku eskolarraren barruan, tenis txapelketa




↳ Tenis eskolako ikasle eta irakasleak IMHko pistan.

antolatzeko asmoa dute arduradunek, eta datorren urtean Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko asmoa ere bai. Klaseetan, giro oso ona sortu dela esan digu Udal Kirol Teknikariak; hurrekin batera, askotan, gurasoak ere klaseetan parte hartzen dute.

Tenisa gero eta gehiago praktikatzen da Elgoibarren. Ez gazteen artean bakarrik, nagusiek ere oso gustora egiten dute tenisa.

Bestalde, tenisa gure herrian harrera handia duen kirola da. IMHko tenis pista, ia egunero dago okupatua eta astebukaeratan oso zaila da pista libre aurkitzea. Pista erabili ahal izateko, nagusiek 400 pezeta ordaindu behar izaten dute orduko eta hurrek, 200 pezeta. Pasa den udan, 130 partidu jokatu ziren eta emakumeen partaidetza oso altua izan zen.

Uztailean, pertsona heldu eta gazteentzat ikastaroak egoten dira. Aurten, baliteke udaberri aldera ere, ikastaroren bat antolatzeari.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Autoedizio eta Diseinu Grafikoa

Zubiaurre

Sta. Klara 40-3. Tel: 744444.



Gure Bide: txirrindularitza bultzatu duen elkarte

Gure-Bide elkarte
sortu zenean, 1959.

urtean, soziedade kulturalik
sortu ez zitekeenez,
txirrindularitza elkarte
izango zela erabaki zuten.
Hasieratik antolatu zituzten
hainbat txirrindularitza
lasterketa, eta urtero
Etxaniz Memoriala beraiek
antolatzen dute.

Bi kuadrila batu ziren sozieda-
dea sortzeko, bata "beti-egarri" eta
bestea, "umore-ona". Banaka ba-
tzuk ere batu zitazkien, eta guztira
70 bazkide izan ziren elkarte sortu
zutenak.

Txirrindularitza gain, beste
ekintza askotan ere laguntzen dute
Gure-Bidekoek: garai batean joku-
eskolarretan eta ziklokrosean;
odol-emaileentzako tortilak eta
pintxoak ere bertan prestatzen dira;
jubilatuen bazkaria prestatzen ...
Iniziatiba handiko jendea zegoen
Gure-Bidekoen artean baina, urte-
ak pasa ahala, karrera bakarra gel-
ditu da beraien ardurapean: San
Bartolome bezperan korritzen den
"Etxaniz Memoriala".

Korrikalari ospetsuen partaide-
tza gogoan dute elkartekideek:



↳ Gure-Bidekoak Markina Etxebarrian atsedena hartzen (1961).

Txomin Perurena, Felipe Yañez,
Jokin Mujika, Alfonso Gutierrez...
Lasterketa, 2. mailako afizionatu
mailakoa da eta inoiz izan da
Nazioarte mailakoa ere. Federazio-
ak antolatzen duen Lehendakari
Txapelketaren barruan dago laster-
keta.

Baina begirada atzera bota eta
zenbait datu gogora ekarriz esan
dezagun, Gure-Bide elkarte dago-
en lokala erosi ahal izateko, bazki-
de bakoitzak 8.500 pezeta jarri
behar izan zuela. Urteetan egon
ziren bankuko kredituen interesak
ordaintzen, 300.000 pezetatako

zorra zuritzeko.

Gure-Bide elkartean, ordea,
bazuten "Socorros mutuos" derit-
zon ohitura berezia. Bazkide
bakoitzak elkarterako jartzen zuen
kuotaz gain, 20 pezetatako beste
kuota bat jartzen zuten "fondo" bat
sortzeko. Horrela, elkarteko kide-
ren bat gaisorik jartzen bazen,
elkartek hainbesteko bat ematen
zion laguntza gisa. Garai hartan
seguridade sozialak behar bezala
funtzionatzen ez duenez, haren hut-
sunea bete nahian sortu zuten ohi-
tura hau.

Gure-Bide zopa

Osagaiak:

Porruak, tomateak, azena-
rioak, piper berdeak, tipu-
la, berakatza, piper txori-
zeroak, perrejila, oilo zati
bat, pistola, olio, gatza
eta ardo zuria.

Nola egin:

Kazuela batean olio jarri
eta tipula eta berakatz zati-

tuak bertara bota. Tomate-
ak zuritu eta zatitu eta
piper berdearekin batera
(hauek ere zatituak) kazue-
lara bota. Tomatea desegin
arte eduki.

Gainontzeko berdurak
zatitu eta oiloarekin batera
kazuelan jarri. Gatza gehi-
tu eta oiloa bigundu arte
eduki. Ondoren, oiloa
kazuelatik atera eta haren

okela zatikatu eta gorde.
Pistola zopatarra bota eta
egosi ondoren txinotik
pasatu. Beste ontzi batean
ardo zuri basokada, perre-
jil zatituarekin batera,
minutu batez egosi eta
kazuelakoari gehitu. Iraki-
tzen hasten denean oiloa
bertara bota eta 5 minutuz
irakitzen eduki. Sutatik
kendu eta 10 minutuz utzi.

FITXA TEKNIKO

Sorrera urtea:

1959- 8-23

Bazkide kopurua: 125

Presidentea:

Antxon Bergara

Berezitasuna:

Txirrindularitza

Urteko kuota: 9.500

Helbidea:

Bernardo Ezenarro, 5

Elgoibarko Izarrak aro berriko bigarren urteari ekin dio

1992. urte olinpikoa Elkartearen propaganda eta sustapenerako izendatu eta gero, aurten, Euskararen normalizazio prozesuaren oinarriak finkatu eta lanean hasteko prest agertu zaizkigu Elgoibarko Izarrako kideak.

Horretarako, Elgoibarko Udalak SIADECO enpresari agindu zion lanaren zain daude bai Elkartea eta bai Udala. Elgoibarko Euskararen egoeraren azterketa egin eta gero, hurrengo fasea burutzea besterik ez da falta. Fase honetan, SIADECO-ren ustez, Elgoibarren Euskararen normalizazioa nondik nora bideratu behar den azalduko dute, lan honetan Udala eta Elkartearen zeregin eta funtzioak bereiztu beharko direlarik.

Ikus dezagun 93. urterako dituzten beste helburu batzuk:

Batetik elgoiBARREN astekariaren martxa ona ziurtatu nahi dute. Bestetik, Euskara eta Festa-



↳ 1992eko balantzea eta 1993eko asmoak azaldu ziren Batzar Orokorrean.

ren arteko harremanak sendotu nahi dituzte. Euskalgintzak, beraien kasuan behintzat, negarra eta etsipenarekin loturarik ez duela azaldu nahi dute eta festa giroan ahalik eta denbora gehien pasatzeko gogoia dutela aditzera eman digute.

Elkartekideen ezagutza sozio-linguistikoa handitzea ere nahi dute. Esan digutenez, "jakin egin

behar dugu zertan ari garen, ikuspegi orokor baten jabe izan behar dugu, egiten ari garen lana ulergarria eta kutsakorra izan dadin".

Beraiek esan diguten bezala, "ea egoera ez-normal honi, gutxi-ka-gutxi baina gelditu gabe, buelta ematea lortzen dugun; Euskara eta euskaldunok erdigunean jarritzat protagonismoa berreskuratu behar dugu".



Elkartea eta Udalaren arteko hitzarmena

Hitzarmenaren bidez, Elgoibarko Udalak Elkartearen lanaren onura baiezteaz gain, honen asmoak aurrera ateratzeko diru-kopuru bat ematea ere onartzen du.

Diru-kopurua 1.800.000 pezetakoa da (astekariarentzat emandako 5.000.000ak aparte). Hitzarmen honek urtebeterako iraupena du eta, bi aldeek hala nahiko balute, luzatzeko aukera izango dute.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

Iraegui
ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

Kartutxo
Pub

S.Frantzisko,33 ☎ 74 27 24



20 Larunbata

19,00 MAUXITXAREKIN
KALEJIRA

19,30 ZINEA

"La villa de los viernes"
Zuzendaria: Mauro Bolognini
Aktoreak: Julian Sands, Joanna
Pacula

23,00 MAUXITXA TXARAN-
GAREN KALEJIRA

24,00 MOZORRO DESFILEA
Mauxitxa txarangarekin lagunduta.

ONDOREN MOZORRO LEHIAKETA
Tokia: Foruen Plazan

ONDOREN DANTZALDIA
JOSELU ANAIK Foruen Plazan

21 Igandea

11,15 EIBARKO BANDAREN
KALEJIRA

12,30 EIBARKO BANDAREN
KONTZERTUA

Egitaraua:
Antañon pasodoblea (F.M.
Izquierdo).
Paragraph III Obertura
(Suppé)
Concertino DO menor (Weber)
Si yo fuera rey (Adams)
Marcha de Paris (Allmend)

16,30 ZINEA

"Operación soldados de juguete"

19,30 ZINEA

"La villa de los viernes"

22 Astelehena

19,30 ZINEA

"La villa de los viernes"

23 Asteartea

17,30 MOZORRO
KONTZENTRAZIOA
Tokia: Foruen Plaza

ONDOREN KALEJIRA

Mauxitxa Txaranga eta
GOLOKA hanka haundiekin.

18,00-21,00 DANTZALDIA

Zaharren Biltokian GELATXO
orkestarekin.

19,30 SUZKO ZEZENA

Foruen Plazan.

25 Osteguna

19,30 MORKAIKO MENDIZALE

ELKARTEAREN

50. URTEURRENAREN

AURKEZPENA

Tokia: Herriko Antzokia

26 Ostirala

19,00 ESKULTURA

ERAKUSKETA

Egileak: M.ASUN AKIZU
GERMAN AMURRIO
JAVIER UGALDE

Tokia: Kultur Etxea

Orduetgia: 7etatik 9etara
12etatik 2etara jaiegunetan.



HARPIDETZA TXARTELA

elgoi**BARREN** herri astekaria, **DOHAINIK**, astero buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta elgoi**BARREN**era bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behea. (20.870) Elgoibar
TEL: 74 16 26

TXANDAK

FARMAZIAK:

20, larunbata: **BIDASOLO**

21, igandea: **BIDASOLO**

22, astelehena: **YUDEGO**

23, asteartea: **YUDEGO**

24, asteazkena: **YUDEGO**

25, osteguna: **YUDEGO**

26, ostirala: **ORMAZABAL**

OKINDEGIAK:

21, igandea: **FOTERO**



Etxebizitzak

Lokal edo gela baten bila nabil, artisau lantegi bezala erabiltzeko.

Deitu: 74 27 12 . Trini

Galdutakoak

Udaltzaingoak egun haue-
tan jasotako gauzak: Urrez-
ko eskumuturreko bat,
eguzkitako betaurrekoak,
emakumezkoen diru poltsa,
giltzak.

Duela hilabete Samsung
AF-200 kamara automati-
koa galdu nuen Madarixa
inguruan.

**Inork aurkitu izan balu,
deitu mesedez 74 02 09**

Lana

Aseguru aholkularitzak
KOMERTZIALAK behar
ditu.

San Bartolome, 15 behea.
(San Bartolome eta Erro-
sario arteko pasalekua)

Tituludun irakasleak
O.H.O.ko klase partikula-
rrak ematen ditu.

Alazne Tel.: 74 28 53

"Modulo 3 de Fabricación
Mecánica" ikasketak amai-
tuta lan bila nabil.

Jon Etxabe Tel.: 74 06 19

Salerosketak

Bizikleta bat saltzen dut.
BH 12 "Kanbio" duna. Pre-
zioa negoziatzeko.

Tel: 945-28 94 81

Deitu 8etatik aurrera.

**BUTANOZKO SUKAL-
DEA** salgai. 3 su eta labea.
Horrekin batera, zenbait
altzari osagarri oparituko
genuke: aulkia, apala,
etab...

Gauzez 74 14 25

Gimnasia egiteko tresna
saltzen dut. Muskuloak eta
hankak indartzeko oso ego-
kia. Puzioa negoziatzeko.
Aitor: 74 23 27 Egun osoz.

ZODIAK bat saltzen dut.
Yamaha, 5 zalditako moto-
rra. Neurriak: 3 x 1.
Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Nintendo Kontsola bat sal-
tzen dut. **AUKERA!!**
Tel: 74 23 27

Kontaktuak

18 urtetik 22 urte bitarteko
neska lirain, jator eta juer-
gistak, aurreko elgoiBA-
RREN aldizkarian agertu
ziren **23 urtetako mutile-
kin erlazionatu nahi dute.**
Erantzuna bertan.

Orrialde honetako iragarkiak doan dira.
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel.: 74 16 26

JU A R I S T I

ARROZTEGIA

- ETXEBIZITZETAKO ERREFORMAK
- LEIHO ISOLATZAILEEN FABRIKAZIOA

ETA INSTALAKUNTZA

Fixo edo oszilakorrak,
Egurrezko nahiz mistoak
(Aluminio eta egurrez
edo brontze eta egurrez).

**AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE**

BULEGOA:
Ubitarte 2 behea.
Tel 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana 16.
Tel. 74 29 94



**24 orduz
zuekin**


Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

LANBROA



ORAIKO

Ihauterietako
LARUNBAT eta ASTEARTEAN
MOZORRO LEHIAKETA!!
goizeko 2etan hasita.



Sariak:

- Banaka: 10.000 pta eta txanpan botila.
- Kuadrilak: 20.000 pta eta txanpan botila.

SARRERA DEBALDE!